

Jon Loiola, igaz lez, txapeldun Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketan

10. orrialdea

Arratia futboleko Bigarren Mailan

Arratia futbol klubeko andrazkoen taldea Bigarren Mailara igo da, klubaren historian lehenengoz eta 2016-2017 denporaldian, Arratia izena estatu osoko futbol zelaietan zehar erongo dau taldeak. Aurreko denporaldian, Euskal Ligan bigarren egin eban Arratiak. Euskal Liga Gasteizko Neskak taldeak irabazi eban. **11. orrialdea**



Gaizka Agirreren taldea hirugarren Europako Raid Txapelketan

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

256

2016ko abuztuaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Jaiak herri eta auzuneetan

Zeanurin Andra Mari jaiak eta Areatzan sanbartolomeak ospatuko dira hilaren erdialdean eta amaieran, hurrengo hurrengo.

Kalejirak eta erromeriak ipiniko dabe jaigiroa Zeanurin jaietako lau egunetan. Dana dala, rock musikeak be izango dau tartea. Abuztuaren 13ko, gauean Uckaia, Itizarren Semeak eta Arcada Social taldeak joko dabe eta.

Areatzako jaietako zortzi egunetan be, musikeak izango dau protagonismo nagusia. Izan be, tistulariak, batukadea, tanborra, Banda, Orkestra, mariatxiak eta

abar entzuteko aukerea egongo da herriko kaleetan. Gauetan, We Are Standard, Larregi, Gabacho Maroc eta Arratiako Uckaia eta The Jeloskorsek ipiniko dabe martxa.

Auzune batzuetan be bi edo hiru eguneko jai egitaraua prestatu dabez. Dimako Artaun eta Olazabalen eta Zeanuriko Otzerinmendin, esate baterako.

Igorren, hilaren 15ean, Andra Mari egunean, Udako jaia ospatuko dabe. **5. eta 7. orrialdeak**



Zeanuriko jaietako jokoak.

Argazkia: Miren Begoña Idigoras.

LEMOA

1936ko gerrako gudarien omenezko diskoa

Hauxe da gure kantua diskoa zortzi abestik, poesia bik eta bertso batek osotuten dabe, Arratia eta inguruko artistak sortu eta kantutakoak. Disko honen bitartez udalak memoria historikoaren gaia gazteentzako erakargarria egin gura izan dau. Elkartruke programako gazteak ikasturtean zehar landu dabe gaia. Eurak salduko dabe diskoa eta dirua Frankfurt eta Berlinera egingo daben biajea pagetan lagunduko dau. Han memoria historikoa landuten daben alkarreentzako gazteak konpartiduko dabez esperientziak.

Borja Estankona, Mikel Urdangarin, Eskean Kristö, Unai Santos, Arkaitz Estiballes eta Igor Estankona dira egileetako batzuk. **13. orrialdea**

ARRATIA

Errefujiadu eremuetan izandako arratiarrak Giza Eskubideen urraketak salatu dabez

Gotzone Amuriza Chios irlan egon zan bagilaren 17tik garagarriaren 23ra bitartean, erizain moduan. Mikel Zuluaga, beste sei arratiarregaz batera, Tesalonikarako karabanen. Greziako leku desbardinetan lan desbardin egin arren, biak bat datoz errefujiaduen egoera lazarria salatuteko orduan. **8. eta 9. orrialdeak**

ZEANURI

Karobia ketan abuztuaren 6an

Aurten be, azken hogeit urteetan moduan, San Justoko karobia ketan ikusteko aukerea izango da abuztuaren 6an, zapatuan. Goizeko 11:00etan isiotuko dabe karobia. Igaz arte, Ipizki Taldea arduratzen izan da karobia martxan ipinteaz, baina 2016an Ipizki bere hogeit urteko ibilbideari amaiera emotea ebatzi dau eta Otzerinmendiko kofradia arduratuko da karobia lanean jartzeaz. Karobia isiotu ondoren, urdaia, pamiatxa eta ardaa egongo da bertaratuten diranentzat. **12. orrialdea**



Areatzako jai zoriotsuak opa deusueguzi


Pedro Álvarez Blanco
NOTARIOA

Tel.: 94 673 92 26
Añibarro parkea 3, Behea Faxa: 94 673 94 06
48143 Areatza E-maila: areatzanotaria@gmail.com

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

OLINPIKO ARRATIARRAK: ERAUZKIN, ARTETXE ETA ZUBERO

Abuztuan zehar Rion (Brasil) jokatu diran Olinpiar Jokoak aukerea emoten deuskue Arratia aldean izan diran hiru kirolari olinpiko gogoratzeko: Felix Erauzkin zeanuriztarra, Alejandro Artetxe igorretarra eta Luis Zubero zeberioztarra. Erauzkinek eta Artetxek 1948an Londonen jokatu ziran jokoetan hartu eben parte eta Zuberok 1968an Mexikon.

Mundu Gerrateagaitik 1940 eta 1944 urteai egokiazan jokoak bertan behera geratu ostean, 1948an, jadanik bake garaian, XIV. Joko Olinpikoak jokatu ziran Londonen garagarilaren 29a eta abuztuaren 14aren bitartean. Urte gogorak ziran hareek eta bizi zan krisi ekonomikoak an-

tolaketan be eragin handia izan eban.

Felix Erauzkin

Felix Erauzkin (1907-11-20) zeanuriztarra, Zezilio Erauzkin Gorbeiko artzainaren semea zan. Atletismorako zaletasuna txikitatik euki eban eta 1928tik aurrera txapelketa ofizialetan lehiatzen hasi zan, euskal barra, jabalina, disko eta pisu jaurtiketetan parte hartuz. Mundu mailan be ospe handia lortu eban, euskal barran oinarrituz asmatutako jabalina jaurtizteko ereagaitik: Erauzkin estiloa.

1948an, berrogei urte gaz, bere sasoirik onena galduta eukanean, disko jaurtiketako Espainiako marka hobetzea lortu eban Portu-

galeten: 44,49 metrokoa. Marka horri eta urte horretan lortutako Espainiako Txapelketari esker, Londoneko Olinpiar Jokoetarako txartela eskuratu eban.

Wembley estadioan jokatuako Jokoetan mundu mailako disko jaurtitzaila onenakaz neurtzeko aukerea izan eban Erauzkinek, Gordien eta Consolinigaz besteak beste. Dana dala, finalera sailkatzerik ez eban lortu, 43,66 metroko jaurtiketaz kanporatua izan zan eta.

Alejandro Artetxe

Alejandro Artetxe igorretarrak (1923-2-15) boxeoa hartu eban parte, semiastunen kategorian (81 kilo) hain zuzen be.



Felix Erauzkin diskoa jaurtitzen.

Abuztuaren 7an, Vital L'Oste belgiarren aurka burrukatu eban. Kronikak inoenez norgehiagoka oso parekatua izan zan eta Artetxek hasiera indartsua egin eban K.O.-aren bila, baina belgiarrak ondo eutsi eban arratiarraren eraso eta amaieran puntuetara nagusitu zan, Alejandro Artetxe kanporatuz.

Luis Zubero

Luis Zubero zeberioztarrak (1948-3-18) 1968an Mexikon jokatu ziran XIX. Olinpiar Jokoetan hartu eban parte, birrindularitza proban. 19 urteko birrindulari zeberioztarrak dominanik ez eban lortu, bere zeregina Tamamesentzat gregario lanak egitea izan zan eta 28. postuan sailkatu zan.

Jon Urutxurtu

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abuztuaren 1etik 7ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 8tik 14ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 15etik 21ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Abuztuaren 22tik 28ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Arteaoraino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioariek ez dago.

* **Adi udako ordutegiari**

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Rakel Aldekoa Diez, Alvaro Rabelli, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Igor Perez eta Azibar Sagarna (Igorre) eta Ainhua Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Rafa Ugaldere zuzenketea

Honen bidez zuzendu egin gura dot Lumatuten Sailerako idatzi neban azken artikuluan esandakoa. Artikuluaren izenburua "Soberanoa eta futbola: cosa de hombres" izan zan. Bertan, Athleticeko nesken taldeari egindako harreraren Foru Aldundiko ordezkariak, Bilboko alkateak eta Athleticen presidentek erderaz baino ez ebela egin kritikau neban. Gerora jakin neban euskeraz be egin ebezala adierazpenak; bereziki, Josu Urrutiak. Beraz, okerreko informazio hori zuzendu egin gura dot, parkamena eskatu kaltetuai, eta parkamena eskatu irakurle guztiai sortu dodan nahasteagaitik.


RAFA UGALDE

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrikut eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Abade



Mezea eta beste hainbat zerbitzu erlijioso emoten dauzan eleizgizonari abade (abadéa, agoskatuta) esaten jako. Batuz, apaiz da. Abade latinetik hartutako berbea da. Gizonezkoa izan behar dau derrigor, eta Teologia ikasketak ikasi behar dauz abade izateko; gainera, ezkonbakoa izan behar dau, Eleiza Katolikoaren Zuzenbide Kanonikoak modu horretan aginduten daualako. Beste eleiza kristinai batzuen artean, barriz, protestanteak esate baterako, gizon ezkonduak eta andrak be abadeak izan leitez.

ERETXIA

Gaia jarrita

Dimako jaien amaierako bertso saioa, urteroko zita dot eta irrikaz bertarututen naz: ondo pasetako irrikaz eta ikasteko irrikaz; beti harrituden naualako zeozerk bertan. Izan be, daukien talde antolatzaile apartari deusagu zor hori; ezau-garriren bat esatearren esango neuke jakituna, begi onekoa eta ausarta dala. Zer dala-ta hori? Ba, ez-ohiko bertsolari taldeak sortzean dabezalako eta asmatu, betiko zirkuluetatik kanpo dagoanen bat ez dalako falta izaten, ezta erispide zuzenez aukeraturako gazteren bat be. Kanonetik kanpoko bertso saioak suertetan dira holan eta eskertuten deusat talde horrerik filosofia horregaz antolatutea euren herriko saioa, aukera barriak zabaltzen deuskuz holan eta.

Aurtengotik Ainhoa Aranburu gai jartzailearen iaioetasuna aita-tuko neuke eta, bertsoan ezinean, prosan heldu, berak jarritako gai bateri:

Aspaldi honetan ikasi dozun zerk tristetu zaitu?

Honexek: Bardintasunaren izenean andrazkook lehen gizezkoenak ziran zenbait ohitura txar geureganatu doguz, euren artean alkoholezko edariak hartutearena. Ikasi dot muga zehatzak ipini ezik luzarora zenbat kalte egiten deus horrek andreaki berari eta bere familiartekoari. Tristetu nau nire inguruan holako kasuak ikusteak eta errudun sentidu arazo guk horretarako biderik zabaldu badogu. Gaztetan jaietan murgildu eta mutilak egiten ebezanetan euren mailan jardutearren, hori progrea goa zalakoan, edo eskubidea zan ustean, edo beste barik txepel itxuririk ez emotearren hasi eta edadean jarraitu tristeziak uxatutearren edo aisialdia eta harreman sozialak zeozker hartuteagaz lotuta ulertutearren.

Ikasi dot horrek ez daukala zerikusirik ez bardintasunagaz ez andron ahalduntzeagaz, eta hobe dala aisialdia edanetik aparte be



MAITE ARTABE URKIRI

Eusko Jaurlaritzako
Gazte Teknikaria

landutea, zaletasunen bat aukeratu eta ekitea muzin eginez gizezkoen estereotipoak dakarzan zenbait ohitura arriskutsuri.

Nire gaiagaz loturik Diman bertsolariak euren paperetan jardunez erakutsitako jarretatik aita-tuko neukezanak: Uxue Alberdik negar egin eban orgasmorik izan ez daben andregaitik; ez lar edanaren ondorioz. Onintza Enbeitak amamarena eginez ideologiak emoniko indar sendoa erakutsi eban; ez edanak emoniko indar oldartsua. Alaiia Martinek arrazionaltasun argi eta arina; ez edanak sortutako zurrumbilo mental torpea.

Zure itaunari erantzunda, Ainhoa, pasau naiten bertso-saioetan sekula falta ez dan tonu positibo eta umoretsura eta esan dagian proposatuko neukela edan eta edan ibili beharrean gehiagotan hurreratuteko txokolatea eta txurroak salduten dabezana txosnara eta plaza erdiko jantzara; ligetako aukerarik ez galduteko eta barre egitekorik be ez; kuadrilen joko eta hartu-emonakaz gozatuteko eta teilatu gainean bibolina joteko eta kanpandorrea panderoa.

Azken agurrerako, Nerea Ibarzabalek berean kantau ebanaren harira, dinot: geratu daitezala gure jaietako bizipenak Dimako frontoi txikiko hormetako tizazko pintadak baino askoz luzaragoan markaurik gure kurikulum emozionalean. Ez dagiazala alkoholak ezabatu.

LUMATUTEN



ZEFE ZIARRUSTA

Bildurra

Ezezagunari bildurra izaten erakusten deuskue. Esaterako erabakitze eskubideari. Erabakitze eskubidea giza eskubideen markoan kokatu behar da norbanakoi zein instituzinoai erantzukizuna eskatzen deusan markoa dalako. Hain justu, marko horrek erantzukizunen bide orria marraztu, eta egiten dana eta ez dana aztertzeko aukerea emoten dau.

Bildurak gure kasuan inposizinoa eta menpekotasunaren aitortza dauka bere muinean. Bildurra oinarizko baliabidea da podere sistemak mantenduteko, eta sistemeak bape be zehatzak ez diran bildurak izatera bideratzen gaitu. Horri guztiari aurre egiteko, jentartearen eta persona askeen borondateen gain eregiten dan kultura aldaketea eragin behar dogu ezinbestean. Izan be, sozializazio eta askatasunean jarduteak harreman aldaketeagaz dauka erlazinoa.

Sinistu egin behar dogu daukagun eskubidean eta hasi geure egiten, ez dogu distorsionautako begiraden menpe markau behar ibilbidea. Ez da nahikoa "legeztatzea" aukerak

zabaltzeko; aukera horreek garatu egin behar dira politika publikoetan, ikaragarria da-eta ez dakigunaren aurrean eregiten doguzan bildurak. Ez dago apurtxo bat hausnartzea besterik, bildurak eskubideen defentsan zenbat mobimentu eta leku ekiditzera abiarazten gaituen ikusteko.

Egiten dan planteamentuaren arabera "segurtasuna" edo askatasuna aukeratu behar da. Dilema horren aurrean jartzen doguz geure buruak sarritan, eta zoritxare ez gara oharzen askatasunak emoten dauala segurtasuna. Hori bai, bildurra daukan eta babestea behar dauan pertsona askoz errezago kontroletan da, podertuta dagoan pertsona baino.

Sarriegi, zoritxare, segurtasunaren izenean hartutako ebatziak ez dira izaten zuzenak; bildurraren urbanismoa deitzean dana geure baitan sartuta daukagulako. Baina segurtasuna bermatzea ez da eremuak esterilizatzea, herritar guztiak erabilteko moduko leku publikoak bideratzea baino. Eremu publikoa da mota guzti eta askotarikoak eregiteko gunea eta indar berezia egin beharko geunke eremu publikoari aniztasunagazko lur gunea emoten, eskakizun eta eskubide guztiak lur publikoa hartu dagien. Eta sekula ez, eremu publikoa erabilteko dogun askatasuna mugatuten.

Eskubideak babesteko sarritan legeak neuri garestiak proposatzen ditue... zoritxare, dirudienez borondate politikoa eurotan neurtzen da. Eskubideen aitortzak eta askatasunak nork geure buruari begiraturera behartzen gaitu; espilu hori barik ezinezkoa da-eta edozein arazori beharrezkoa leuken erantzun posible, baikor eta kolektiboa emotea.

ZERTZEAN

394
ohe
huts

Behetik gora, izokinak bezala... Aurtan ude beroa dator antza merkurioa beti gorantza, urtez urte gradu bet gorago kantsauko gara berandu baino lehenago

Laga alboan boga eta sega... Gure historiak adarrak okerrak dekoz ta biherko erronkak okerragoak datoz, edan, jantzan eta narrutan egin biher eguzki Amandrea etorriko da bardin

Itzali telebista zabaldu begiek... Hauxe da goiko agintariak gure dabena gu sofán itzunde lozorroan ahal dela, ez memoriarik, kontzientziarik, itxaropenik hainbeste frente dekoguz zabalik!

394 taupada gehiago gure bihotzetan...

Iker Yurrebaso Pikazak Dimako Jaietan euskal errepresaliaduen Giza Eskubideen aldeko "Etxean gure doguz" kolektiboak antolatutako ekitaldirako egin eta irakurritako testua.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Azoreetako Sao Miguel irlan ateratako argazki hau bialdu dau Areatzako Mikel Urrizek. "Atlantiko Itsasoa" izena ipini deutso argazkiari eta ozeanoaren indarra, orroa eta freskurea dakar irakurle guztientzat.

BEGITUKO Argazki Lehiaketan parte hartzeako begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira argazkiak urri lehenengoaren 27a baino lehenago. Irabazleak bi personentzako astegoiaren bat landetxe baten izango dau saritzat. Gehienez hiru argazki bialdu ahal ditu partaide bakotxak, argazkia non, noz eta nok aterata dagoan esanda.

Animau eta konpartidu geugaz oportetako irudirik ederrenak.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

Zugaitik BEGITUten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

ARRATIA

Trikitixa soinuak hile osoan

Erredakzioa

Dimako Artaun auzuneko San Bizente jaiak, Zeberioko San Adrian Argiñao auzunean eta Zeanuriko Otzerimendiko sanjustoak dira oraingo hileko lehenengo jaiak. Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak, Bediako Murtatzan, Lemoako Azurrekan eta Zeberioko Elizondon ospatuko dabaz. Hilaren erdian, andramariak Igorren eta Zeberioan. Hurrengo eguna be, San Roke hain zuzen be, jai eguna da leku askotan: Dimako Olazabalen eta Bediako San Roke ermitan, barbarako. Han, 12:00etako mezearen ostean, barauskarria, trikitixa eta jantzak egongo dira.

Hilaren 24an, sanbartolomeak, ospatuko ditue Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

Zeberioko jaiak, Sandoniak, urri lehenengoaren 1ean hasiko dira.

Artaun (Dima)

Abuztuak 6, zapatua

19:00etan, txupina. 19:30ean, txixi-burruntzia. Urdaia eta pamitxea doazen guztientzat. 20:00etan, Bola Txapelketea. XIX. Lourdes Soraluze Saria. 20:30ean, erromeria.

Abuztuak 7, domekea

12:00etan, euskal mezea. 13:00etan, triki poteoa. Bertsolariak: Beñat Ugartexea eta Etxahun Lekue) eta trikitixa. 19:00etan, herri kirolak. Dima vs Mutriku. 20:30ean, zozketea.

Abuztuak 8, astelehena

11:00etan, auzoan hildakoen aldeko mezea. 12:30ean, Mus Txapelketea. 12:30ean, jolasak eta antzerkia. 17:00etan, Briska Txapelketea. 19:00etan, Tortilla Txapelketea. 20:00etan, Igel Txapelketea. 21:00etan, amaierera eta txokolata.

Otzerimendi (Zeanuri)

Abuztuak 6, zapatua

11:00etan, karobia isiotu. 12:00etan, barauskarria. 14:00etan, bazkaria.

Abuztuak 7, domekea

12:00etan, mezea. Herriko jantziaren

erakustaldia eta barauskarria. Goizean zehar Paella eta Tortilla Txapelketak (Paellea okelazkoa izan behar da).

14:00etan, paella eta tortillen aurkezpena. 17:30ean, Mus Txapelketea. 18:00etan, Bola Txapelketea.

Murtatza (Bedia)

Abuztuak 10, eguztena

12:00etan, mezea. Ondoren barauskarria eta trikitixa eta Mus Txapelketea. 17:00etan, Briska Txapelketea.

Azurreka (Lemoa)

Abuztuak 10, eguztena

Mezea San Lorentzon. 12:10ean, barauskarria trikitilariakaz. 12:30ean, erromeria. 18:00etan, umeentzako jokoak eta Igel Txapelketea.

Andra Mari. Udako Jaia (Igorre)

Abuztuak 15, astelehena

10:30ean, XXVIII. Andra Mari Saria: Gazte mailako txirindulari lasterketea. 12:30ean, mezea. 13:15ean, barauskarria Goiko Plazan. 16:15ean, Briska, Mus eta Tute Txapelketea. Izen emotea 16:00etatik 16:15era. Saria: otzarea. 18:00etan, Igel Txapelketa. Izen emotea 17:30etik aurrera. Saria: otzarea. 19:00etan, Jokaldi taldeagaz erromeria. Ostean, DJ Ismael.

Olazabal (Dima)

Abuztuak 15, astelehena

Andra Mari Eguna

12:30ean, Txakoli Eguna. 19:00etan, *Ehun argazki mende bat* argazki erakusketea.

Abuztuak 16, martitzena

San Roke Eguna

08:00retan, Ilunbera ibilbidea. 12:00etan, meza nagusia eta umeentzako jolasak. 13:30ean, nagusien Bola Txapelketea. 17:00etan, umeen Bola Txapelketea (6-9 urte eta 10-12 urte). 18:00etan, Irrien Lagunak. 19:30ean, umeentzako baloiak eta txokolata. 20:00etan, zozketea.

Abuztuak 17, eguztena

San Roke Txiki Eguna

12:00etan mezea. 14:00etan, auzo bazkaria. Bazkalostean erromeria.

ZEANURI

Herriko txistulari eta trikitilariak ipiniko deutsee soinua Andra Mari jaiak

Erredakzioa

Herriko tradizioak agintzen dauan moduan, txistulari eta trikitilariakaz hiru zubiak pasauz hasi eta amaituko dira Zeanuriko jaiak, eta jaiak irauten daberen bitartean, goizeko 11:00etan kalejireia egingo dabe txistulari eta trikitilariok. Jaietako lau egunetan, erromeria egongo da gauean. Zapatu gauean, Uckaia, Itziarren Semeak eta Arcada Social taldeak kontzertuak eskeiniko ditue. Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXVI. Txapelketea astelehenean izango da eta pelota jaialdiak, antzerkia eta gastronomia txapelketak be ez dira faltauko.

Abuztuak 13, zapatua

Gazteen gaua

08:00retan, Gorbeira igoera. 14:00etan, Txupinazoa eta Hiru Zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz. 15:00etan, herri bazkaria eta Kartel Txapelketako sari banaketea. 17:00etan, eskupeleta jaialdia. Ondoren, frontenis finala. 19:30ean, triki-rally-bertso poteoa. 22:00etan, kontzertuak Uckaia, Itziarren Semeak eta Arkada Social taldeakaz. Ondoren erromeria Akerbeltz taldeagaz.

Abuztuak 14, domekea

Umeen Eguna

11:00etan, kalejireia herriko txistu-

lari eta trikitilariakaz.

11:00etan, umeen jolasak plazan, puzgarri, egurrezko jokoak, ur jolasak.

17:00etan, Elkarrekin des-jolasten, Sudurkeriak konpainiagaz.

18:00etan, pelota jaialdia (amateurrak).

20:00etan, Salbea Andra Mari parrokian.

20:30ean, kuadrilen mozorro desfilea.

22:30ean, Zeani Antzerki Taldearen emonaldia, *Amari mutik bez*. Ondoren: Hamargutxi taldeagaz erromeria.

Abuztuak 15, astelehena

Andra Mari Eguna

11:00etan, kalejireia herriko txistulari eta trikitilariakaz.

11:30ean, mezea Andra Mari eleizatan.

12:30ean, Urduñako Bihotza konparsea, gaitero eta erraldoiakaz.

18:00etan, Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXVI. Txapelketea plazan.

19:30ean, Kuadrilen arteko Futbito Txapelketearen finala, Zulaibarren.

22:00etan, Play-Backa.

Ondoren: Erromeria Luhartz taldeagaz.

Abuztuak 16, martitzena

San Roke, Sukaldari eta Jubiladuen Eguna

11:00etan, kalejireia herriko txistulari eta trikitilariakaz.

11:30ean, mezea Andra Mari Parrokian.

11:00etan, Sukaldari Lehiaketearen hasikerea.

12:30ean, herriko jubiladuen koparduxoa.

14:30ean, sari banaketea eta bazkaria plazan

16:30ean, III. Mus eta Briska Txapelketea.

Ondoren: Jantza Txapelketea. Amaieran, zozketea.

21:00etan, Jokaldi taldeagaz erromeria eta txokolata danontzat.

Jaiak amaierera emoteko Hiru Zubiak herriko txistulari eta trikitilariakaz.



Zeanuriko Etzanderak Dantza Taldea. Argazkia: Miren Begoña Idigoras.

IGORRE

Ondasun Higiezinaren Katastroko balore barriak ipintek polemikea sortu dau

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak Ondasun Higiezinaren Katastroko balioak eguneratu ditu eta Igorreko Osoko Bilkurak bagilaren 20an, horreei egokitzeko higiezinaren gaineko tipo barriak onartu ebazan EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren kontrakoakaz. Ebatziak ekarriko dituan ondorioak azalduteko, orri bat banandu eban Udalak etxe guztietan. Honeri, "desinformazio orria" deitu eutsan EAJ-PNVk eta EH Bilduk eta EAJ-PNVk diru publikoa txarto gestionetea leporatu eutsien alkarrer.

Onartutako tipo barriak, kasu batzuetan ordaindu beharreko zerga igoera eta beste batzuetan jeistea dakarre. Holan, etxeetan banandutako orriaren arabera, katastroko balioa

eguneratu barik daukien eraikinak, baserriak adibidez, igoera izango dabe; katastroko balioa eguneratua go daukienak, barriz, aldaketa txikia edo jeitsierera izango dabe. Horren ondorioz etxebizitzetako errekaudazioa igon egingo da, baina igoera hori "% 6ra mugatuko da". Honek dira Igorreko Udalak onartu dituan tipo aplikagarriak: etxebizitzetan 0,1444; komertzioetan, 0,1619; industrian, 0,8647 eta besteetan 0,1897.

Etxebizitza hutsai gainkarga bat be aplikauko jakie erabilera bultzatze-ko. BFAk gehienez % 50 igotea baimenduten dau eta horixe da Igorreko Udalak onartu dauan gainkarga.

EAJ-PNV eta EH Bilduren arteko akusazio trukea

EAJ-PNVk, balio kastatrala egunera-

tzean diru bilketan igoerarik egon ez daiten, tipo aplikagarriak beharrezko proposatu eban, eta etxebizitza hutsai % 50eko igoera ipini aurretik azterketa bat egitea. EH Bilduk onartutako tipo aplikagarriak ekarriko dauan zerga igoera ezkutatze-ko, etxeetan banandutako orriari, informazioa beste gauza batzuek nahastea leporatu deuto EAJ-PNVk EH Bilduri, garagarrilean zehar herrian zabalduetako orri pare baten.

Salaketa honei erantzuteko EH Bilduk be atera eban beste orri bat. Han, EAJ-PNVren "gestino faltea" kritikau eban. "40 urtetan katastroko balioak ez eguneratzea, udaletxeen diru sarrerak mugatuz eta herritarren artean egoera injustuak eraginez, gaizki gestionatzea da" dinon.

Zeanuri
Jai batzordeak eta
Zeanuriko Udalak
Gora Andra Mariak!
JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

IGORRE

Hizkuntza eskubideen urraketak salatzen kanpaina abiatuko da

na argi euki behar dogu euskeraz askatasunez eta bardintasunean bizitzeko aukera izatea ez dala euskaldunon kapritxo, eskubidea baino. Euskeraz bizi gura dogunok, euskeraz eroso bizi gura dogu. Horregaitik, garrantzitsua dala uste dogu gure eskubidea kaltetua dan bakotxean, aktibetea eta kejea ipintea" dinoe.

Erredakzinoa

Urri lehenengoan, Igorreko Euskera Planak hizkuntza eskubideen urraketak salatzen kanpaina jarriko dau martxan. Honen helburua da euskaldunok hizkuntza eskubideen urraketak salatzen bideak ezetutea eta urraketen aurrean kejak ipintea.

Euskera Planeko arabera, "euskera minorazino egoeran dagoan seinale dira askotan bizi doguzan hizkuntza urraketak. Nori ez jako pasau euskera erabilteagaitik kaltetua izatea, eta euskeraz bizitzeko eskubidea ez errespetetea? Euskaldunok hizkuntza menperatu baten hiztunak garan aldetik, bildur eta konplejuz beterik gagoz, bai-

Kejak zelan ipini

Kejak ipinteko modu desbardinak dagoz eta eskuko telefonorako aplikazio baten bitartez, telefono dei batez edo Elebiden inzidentziak sartuta ipini daitezke kejak. Aplikazioak Akuilari izena dauka. Ez da erregistrau behar eta momentuan egin daiteke salaketea. Zorionduteko be balio dau www.akuilari.eus webguneari.

Kejea telefonoz egiteko, ostera, Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren webguneari erregistrau behar da aurretik: www.euskararen telefonoa.eus // 948 14 61 72. Azkenik, Elebiden intzidentziak sartzeak, www.euskara.euskadi.eus webguneari erregistrau behar da.

AREATZA

Astondoa Piroteknia hartzekodunen konkursoan sartu da**Astondoa Piroteknia.****Erredakzinoa**

Areatzako Astondoa Piroteknia borondatezko hartzekodunen konkursoan sartu da. Izan be, enpresek zor handiak ditu bertako langile eta langile izandakoak. Ignacio del Olmo administratzaile konkursala konbenio batera heltzean saiaturako dala azaldu deutse BEGITUCCI CCOO sindikatutik.

Astondoa Piroteknia soldata zor handia dauka. Bertako langileak

urtailetik egon dira soldata kobru barik, eta langile izandako batek ia 100.000 euro ditu hartzeako (indemnitazioa gehi soldata) epaile batek errekonoziduta. CCOO sindikatua, aktibo ez dagozan beharginai pagetako enpreseagaz egutegi bat ezartzen saiatu da, baina "enpresek ezezko emon" dauka dinoe. Honen aurrean, Soldata Bermatzeko Fondora (FOGASA) jo beharko dabe langileak zor jakienaren zati bat eskuratzeko.

Astondoa Piroteknia 100.000 euro zor deusala juridikoki errokonoziduta daukan beharginari Soldata Bermatzeko Fondoak, % 25 inguru pagatu leikio.

Hartzekodunen konkursoa

Hartzekodunen konkursoa prozedura juridiko bat da, enpresa batek zorrai aurre egiteko gai ez danean martxan ipinten dauana. Honen bitartez, langileak izaten dira lehenengoak kobretan.

Konkursoak fase nagusi bi ditu: enpresearen egoera ekonomikoaren ebaluazioa, eta hitzarmena edo kitapena. Lehenengo fasean, konkursoa deklaratu eta prebentziozko neurriak hartzen dira. Gero, administratzaile konkursala izentatzen da egoera ekonomikoaren inguruko txostena egin dagian, eta enpresearen masa aktibo eta pasiboa zehaztu egiten dira.

Pausu honek emonda, zordunak proposamena egin behar dau. Hartzekodunen erdiak baino gehiagok eta ordezkari judizialak onartu eta bete egiten dala bermatu behar dabe. Akordiorik lortu ezean, hitzartutakoa beteten ez bada, edo konkursoan dagoan ondasunak kitatu eta zorra ordaintzea ebazten badau, enpresea kitatu egingo dabe.

Konkurso ia guztien amaierara enpresea zarratuta izaten da.

IGORRE

Urri lehenengoan amaituko dira Igorreko sarrerako lanak**Erredakzinoa**

Abuztuan zehar errotondeari forma emon eta urri lehenengoan lanak amaituta egongo dirala dino Igorreko alkateak. Igorreko sarrerea aldatu daben lanak ondo doazala dino. Ezusteko gitxi egon dirala eta beharrak egiten dauan enpresek

proposatutako hobekuntzak be egin dirala dino alkateak.

Autobusen geralekua azken momentura arte ez da aldatuko, hasikera baten, lanak hasi ahala aldatuko zala uste arren. Lanak puntu horretara ailegetan diranean, frutadenda aurrean egongo da geralekua, lanok iraun bitartean.

ARRATIA

Arratiako Udalen Mankomunitateko kontuak, gardenak eta zorrotzak dira HKEEren arabera**Erredakzinoa**

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arabera (HKEE), Arratiako Udalen Mankomunitatea Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalaz gaidiko erakunde gardenen eta zorrotzen artean dago kontuen kudeaketari jagokonez. 2014ko ekitaldiaren gaineko EAEko Tokiko Erakunde Kontuak buruzko atzen txostenaren fiskalizazioaren emoitzen arabera, HKEE ez dau ezelako hutsunerik antze-

man onespeneko epeetan, ezta Mankomunitateak aurkeztutako kontu orokorren eduki formal eta kualitatiboan be.

HKEEren helburu nagusia Euskal Sistema Publikoaren ekintza ekonomiko eta finantzarioak ikuskatzea da. Ahalik eta berme gehienagaz egin ahal izateko, erakunde ikuskatzaileak erakunde publikoetatik beharrezkoak diran datu guztiak eskuratzeko ahalmena dauka. Horregaitik, Miguel Angel Etxebarria AUMko presidentea pozik agertu da "oso

pozgarria da HKEEren azterketea gaiditzea; izan be, gardentasunaren, gastuaren kontrolaren eta gure baliabide ekonomikoaren, hau da, Arratiako biztanle guztien baliabide ekonomikoaren kudeaketa egokiaren alde egin dogun lana aitortzen dau" esan dau Etxebarriak.

Arratiako Udalen Mankomunitatea (AUM)

Arratiako Udalen Mankomunitatea 1982. urtean sortu zan, osotzen daben udal guztiai aurretik udal eskumenekoak ziran zerbitzuak eskeintzeko asmoz. Gaur egun, udal guztien osotzen dabe: Arantzazu, Areatza, Arte, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide eta Zeanurik. Gitxi gorabehera 206,70 Km².ko azalera dauka, eta 14.009 biztanle bizi dira bertan.

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urquiza Aldekoa Odontologoa
Bidebarri 1, behea
48140 Igorre-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hizkuntza Zentrua 101
R.P.S. 21/06

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibusua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

ASESORIA Gorbeialde
Juridika · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askitasun 28, 1B 48143 Areatza
Tinoia. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

AREATZA

Arratiako Musika taldeen kontzertuak eta We Are Standard taldeak animauko dabez sanbartolomeetako gauak

Erredakzioa

Gabacho Maroc taldeak hilaren 24an joko dau, Uckaia, The Jeloskors eta DJ Runto Selektorrek hilaren 25ean, eguenez eta 26an, We Are Standard eta Larregik. Erromeriak eta DJak be izango dira gaubetan. Baina musikeak egunak be animauko ditu eta holan, txistulariak, batukadea, tanborradea, Banda, Orkestra, mariatxiak eta abar hartuko dabez kaleak jaietan. Eguaztenean, Onintza Enbeita, Arkaitz Estiballes eta Maialen Lujanbiok balkoitik balkoira botako dabez euren bertsoak.

Erraldoi eta Buruhandiak, lehiaketa gastronomikoak, eskupelota partiduak, antzerkiak eta suak ez dira faltauko Areatzako jaietan.

Abuztuak 23, martitzena

14:00etan, txupina. Areatzako Txo-xongilo, Erraldoi eta Buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak.

Kontzertu txikia Motxo tabernaren aurrean. Txistulariak eta Alex & Peio (Eskean Kristö).

17:30ean, Areatzako BatucAKKB batukada taldea.

20:00etan, Salbe Herrikoia. Hilarion Eslavaren "Salve Regina"; Areatza eta beste herrietako lagun taldea.

23:30ean, XXIII. Play-Back Lehiaketea. Ostean, erromeria Zirkinik bez taldeagaz.

Abuztuak 24, eguaztena

06:00etan, mortero jaurtiketea.

11:00etan, txistu, tronpeteta eta tanborren kalejireia. Erraldoi eta Buruhandiak.

11:30ean, meza nagusia.

12:15ean, txistu, tronpeteta eta tanborren kalejireia.

12:30ean bertsolariak Balkoitik Balkoira. Onintza Enbeita, Arkaitz Estiballes eta Maialen Lujanbio.

13:30ean, poteoa trikitaliakaz.

18:00etan, eskupelota partiduak (ikusi aparteko programea).

Ostean, Motxo tabernak antolatuta, azenarioak zenbat pisituten dauan asmatzen dauanari (pisutik pasau barik) saria. Lortutako dirua Esku Pelota Alkarteari lagunduteko izango da.

22:00etan, Gabacho Maroc taldearen kontzertua Zubizarra plazatxoan.

00:00etan, txokolata.

Abuztuak 25, eguena

11:30ean, arimen aldeko mezea.

13:30ean, Paella Txapelketea (aurkezpena).

13:30ean, jubiladuentzako kopautxo.

14:30ean, Humberto Mariatxia.

16:00etan, Briska Txapelketea.

17:30ean, txixarilloa.

20:00etan, txokolata txurroakaz (jubiladuentzat).

21:30ean, Kolektivo Monstrenko Konpainiaren *Entre lombrices* antzezlan Añibarro parkean.

23:00etan, Arratiako musika taldeen kontzertuak. Uckaia, The Jeloskors eta DJ Runto Selektorra.

Abuztuak 26, barikua

11:00etatik **12:30**era, umeen tailerrak.

12:30ean, puzgarriak.

13:30ean, Makailao Txapelketea (aurkezpena).

18:00etan, eskupelota partiduak.

20:00etan, poteo rock Orkresta taldeagaz.

22:30ean, kontzertuak, WAS eta Larregi.

Jarraian Disk Breakers.

Abuztuak 27, zapatua

12:00etan, bizikleta martxea.

18:00etan, Danborrada Txikiren kalejireia.

22:30ean, kuadrilen kalejireia eta suak. Areatzako Kuadrilak, Areatzako Danborrada, Ardoa barrura txarangea eta Astondoa Piroteknia.

00:00etan, Erromeria Luhartz taldeagaz.

02:00etan, Areatzako Danborrada-
ren kalejireia.

Abuztuak 28, domekea

11:00etan, Xakea. Aldi bereko partidak Euskal Herriko txapelaren kontra.

13:30ean, Pintxo Lehiaketea Areatzako Tabernari Elkarteak antolatuta.

16:00etan, Xakea.

18:30ean, Larrain jantza, jauzi eta jota.

Ostean kantu jira.

20:30ean, Ortzi Acostaren *Ilusioa* antzezlan Añibarro parkean.

21:30ean, Areatzako Bandaren Musikantu ikuskizuna. Kantarte Gazteder Abesbatza (Barakaldo), Orpheo Ganbera Abesbatza (Leioa), Agrupación Olagüe Abesbatza (Sondika), José María Arregi Abesbatza (Mungia) eta Luis Iruarizaga Abesbatza (Igorre).

Abuztuak 29, astelehena

12:00etan, umeen jantza taldearen kalejireia.

12:30ean, umeen jantzak plazan. Jarraian kopautxo umeentzako.

16:00etan, Tute Txapelketea.

20:30ean, Tortilla Txapelketea (aur-

kezpena).

21:30ean, afari herrikoia.

23:00etan, DJ MAR-ISK-AL.

Abuztuak 30, martitzena

11:30ean, umeentzako ur ginkaneia.

12:30ean, bitsaren jaia.

16:00etan, Mus Txapelketea.

18:00etan, umeen Play-Backa.

19:00etan, Zunbatoia.

23:00etan, Jaien Agurra eta azken txupina.



IGORRE

Arratia futbol taldearen gainkostua eskualdeak ordaintzeko proposamena

Erredakzioa

Datorren denporaldian Arratia Futbol Taldeko andrazkoak estatu mailan jokatu dabe eta horrek gainkostu ekonomiko batzuk ekarriko ditu. Udalaren estimazioen arabera 5.000 edo 6.000 euro inguru. Gainkostu hori kubriduteko Igorreko Udala Arratiako Udalen Mankomunidadeagaz kontaktuan ipini da, eta futbol taldea diruz lagunduteko eskaerea egin deustoa. Izan be, futbolariak "Arratia izena estatu osotik zehar eroango dabe, eta honek eskualde izaerea indartzeaz gainera, futbol munduan bardintasuna bilatze aldera aurrera pausua bultzatzea litzatekeala ulertuz, Mankomunidadeak, eta argi esateko berau osotuten daben udal guztiak, bere gain hartu beharreko dirulaguntza dala ulertzen dogu" dinoe Igorreko udaletik.

Hau, Mankomunidadeari proiektu amankomunak finantzietan hasteko aukera moduan ulertu

dabe Igorreko Udalean, aspaldian aldarrikatzen daben idea da eta: Arratian eskualde mailako zerbitzua emoten daben instalakuntza edo azpiegituren gastuak eskualdeko herrien artean banandutea. Hor, Kultur Etxea, Kiroldegia, Urbieta zelaia... eta era honetako instalakuntzak egongo litzatekez. "Kiroldegia 400.000 euro inguruko defizita eukiten dau urtero, Kultur Etxeak be antzekoa, Urbieta zelaian be ontxe gabiz zelaia aldatuten. Arratiako ume asko hor dabiz futboleant; guretzat karga handia da" azaldu deustoa BEGITURI Beinat Anzola Igorreko alkateak. Alkateak gogoratu dau Igorreko aurrekontua, lehengo 7 miloe t'erditik, 4 miloe t'erdira pasau dala eta Igorreko Udalak bidezkoa jotzen dau instalazino honeetako kudeaketa gastuetan inguruko udalak jago-kien zatia ordaintzea.

Bardintasunerako hauspoa

Igorreko Udalak, Arratia Futbol

taldeko taldekideak eta futbol taldearen zuzendaritza zoriandu gura ditu egindako lanagaitik. "Jakina dogu andrazkoen taldeak izandako bidea ez dala beti, gura bezain leuna izan eta zoritxarrez kirolean bardintasuna lortzeako asko daukagula egiteko, baina arrakasta hau, duda barik, aurrera jarraitzeko hauspoa izango dala ziur gagoz" dinoe udaletik.



Jai batzordeak eta
Areatzako Udalak
jai zoriontsuak opa deustuez

Ondo pasau jaietan!

ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK

Europako herrialde bik hartutako konpromisoak betetea nahiko litzateke Grezian dagozan errefujiaduak hartzeako

Greziako Chios irlara milaka errefujiadu heldu dira Siriako gerratik igesean. Gotzone Amuriza Igorreko erizaina bertan egon zan bagilaren 17tik garagarriaren 23ra arte, errefujiaduai osasun arreta emoten. Chios Turkiatik 18 km.ra dago eta irlatik ikusi egiten da Turkia.

Erredakzioa

Zein erakundegaz joan zinan hara eta zein izan zan zure lana?

Zarautzeko Salvamento Maritimo Humanitario (SMH) GKEgaz joan nintzan. Jakin neban mediku eta erizanak behar ebezala eta ni erizaina nazana lez, aprobetxau neban nire jakituria han lagunduteko. Chiosen hiru errefujiadu eremu dagoz eta hareetan atenzino medikua emoten dau SMHK.

Zenbat jente dago kanpo horreetan?

Irlan 2.800 errefujiadu inguru ei dagoz. Eremu bat ofiziala da eta beste biak, printzipioz behin-behinekoak baziran be, ofizial bihurtu dira. Chiosera irakiarak, afganoak eta siriarrak heltzean dira. Gehien-gehien siriarrak.

Gure moduko jentea da, langilea izan dana. Nik ikusita daukadaz epaileak, anestesistak, irakasleak, ekonomistak, dendariak... Azken finean biaje horretan dagoan jentea da dirua euki dauan jentea, eta biajea egiteko nahikotxo ordaindu dabe.

Zein egoeratan dagoz Chiosen?

Errefujiaduak iges egiten dabe euren herrialdeetatik, Turkiatik pasetan dira eta gero Europarako bidea hartzean dabe. Irla hau Turkiatik oso hur dago eta asko dira hara joaten diranak. Heltzean diranean, erregistrau eta irlan egoteko hile biko permisoa daukie. Ezin dira peninsulara joan, Atenasera barbarako. Gero leku bat emoten deutsee errefujiadu gunean. Badago jentea, oso-oso gitxi, dirua daukana eta hotelen baten gertzen dana, baina ez da ohikoa.

Hiru errefujiadu gune dagoz: Vial, Depethe eta Souda. ACNURek kudeatzen ditu. Biziteko, kanpadendak edo kontenedoreak dagoz. Denda edo kontenedore baten familia bat, bi edo hiru egon ahal dira. Beraz, kondizinoak nahiko eskasak dira. Han, etxoten egoten dira,

papelen zain, "gelditutako kanporatze prozesuan". Hau da, asiloa eskatzen dabena lez, ezin dabez kanporatu, baina gelditutako kanporatzea da. Asiloa lortzeako galdeketearen zain dagoz. Atenasen egiten deutsee galdeketea, eta hori pasetan badabe asiloa emoten deutsee Grezian eta orduan badaukie bidea Europatik ibilteko.

Baina hiru persona dagoz galdeketak egiten eta alkarrizketa bakotxa sei ordukoa da. Eta 2.800 persona dagoz. Heltzean diranean oso pozik datoz Europara heldu diralako, eta hor frenau egin behar dozuz eta esan: hemekoa denpora baterako izango da. Permisook emon orduko... Eta emoten badeutseez, ze emoten ez badeutseez barriro euren herrialdeetara bialtzen dabez.

Errefujiadu eremuak herritik hur dagoz?

Souda eta Depethe Chiosen uriburuan bertan dagoz, baina Vial 15 km.ra dago. Bertatik mobiduteko arazoak eukiten dabez. Taxiak, personako 15 euro kobretan deutsee 15 km. egiteko. Batzuk aprobetxetan dabe egoera dirua egiteko. ACNURek autobus bat ipini dau doban herrira edo uriburura joateko.

Guk ospitalean konsultea eukan jentea eroaten genduan ambulanzian, ez bakarrik larrialdiak, osasun arreta bermatuteko be bai. Eremuan egoan zerbitzu medikua oso oinarritzkoa zan eta gehitxoago behar bazan guri deitzean euskuen jentea ospitalera eroateko. Umezurtz etxean egozan umeai laguntzea be zan gure zeregine-tako beste bat.

Oinarrian jente osasuntsua zan baina danak daukie zauriren bat edo beste.

Zenbat denpora daroe etxetik kanpo?

Gehienak urte eta piku. Guri ume bat etorri jakun, txalupa batetik urtenda sabelean bonba batek egindako zauriagaz. Umeak zor-



Chios irlako Vial errefujiadu eremua.

tzi urte inguru izango ebazan eta etorri zan gernu-zunda eta guzti. Egoera normalean hori gogorra bada, holango egoera baten ondino gogorragoa.

Jentea saiatzen da dana garbi eukiten, baina azkenean hiru familia kontenedore baten eta beroa dala eta... Askotan joaten nintzan kanpadenda batera eta ekzema-aren bat tratetako eta siku euki behar dauala esan gaisoari. Baina ikusten neban 30 gradutan dagozala, izerditan eta ezinezkoa zala.

Greziako zerbitzuak oso muga-tuta dagoz. Greziako egoera ekonomikoa txarra da eta gainera ia 3.000 persona gehiago jatorkoz, gehienak osasun arazoakaz. Gai-nezka eginda dagoz.

Egoera honen aurrean zein da egiten dozun balorazino politikoa?

Nik pentsetan dot Europak ez daukala egoera hori konpontzeko ezelangoz asmorik. Han oso militarizauta dago dana. Horretarako badago dirua, baina gero kondizino hobek emoteko edo jente

gehiago ipinteko asilo permisoak emoten ez.

Europako herrialdeak esan eben bakotzak 25.000 errefujiadu hartuko ebazala. Grezia guztian 50.000 errefujiadu inguru dagoz. Herrialde bigaz nahikoa litzateke danak hartzeako, eta ez da egin.

Eurak oso pozik etorten dira euren herrialdeetatik bizirik urten diralako eta Europara heldu diralako, baina denporea pasau ahala ikusten dabe zeintzuk diran bizi baldintzak. Gehienak familiakoren bat daukie Europako herrialderen baten eta hara joan gura dabe. Jente langilea da eta gura dabe lan egin eta bizimodu duina izan. Baina Europak ez dauka ezelangoz borondaterik hori aurrera eroateko, ezpabere soluzionauta egongo litzateke.

Batzuek etsi egiten dabe azkenean. Aukerea dago 400 euro gehi jatorrizko herrira biajea hartzeako. Guk ezetu dogu hori egin dauan jentea, Siria, Irak edo Afganistanera bueltau dana.

Errefujiadu eremuetan dagoan jentea jente langilea da, behar egin eta bizimodu duina egin gura dauana



Euren herrialdeetan sufridutakoarenetik, iges egin ezinik dagoz errefujiaduak

Mikel Zuluaga, Jabi Sagarna, Edorta Alonso, Arantza Iruretagoiena eta Eunete Alonso, Olatz Alonso eta Urko Alonso umeak garagarriaren 15etik 25era Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformek antolatutako Greziarako karaban hartu eben parte. BEGITU Mikel Zuluagagaz egon da. Grezian sano egoera latza bizi dabe errefujiaduak. Jenteak "zergaitik niri" preguntetan eutsela eta hori gogorra izan dala eurentzat dino. Karaban joandakoak Europako gobernuak modu ilegalean jokatu eta Giza Eskubideen urraketa larriak egiten dabizala salatu dabe.

Erredakzioa

Zein da egin dozuen ibilbidea?

Hemendik Iruñeara, han alkategaz egon eta konzentrazioa egin genduan. Handik Bartzelonara. Bartzelonatik Milanera, eta gero ferrya hartu eta Tesalonikara. Han lau egun egin doguz. Kiroldegietan, leku okupatu eta leku alternatibotan egin dogu lo. Jentea zelan mobiduten dan be ikasi egin dogu.

Estadu osoko autobusak osotu dabe karabana. Euskal Herriko autobus bi izan dira. Bata Bizkaikoa, eta bestean Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako jentea egon da. Bizkaiko autobusean bizi izan doguna egundokoa izan da. Ni mobimentu askotan egon naz baina hemen sortu izan doguna ez da ohikoa. Konfiantza eta maitasuneko katea sortu dogu.

Zein kanpamentuan egon zinen?

Tesalonikako Aristoteles unibersidadean egon gara, Noborders (muga barik) kanpamentuan. Tesalonikaren erdian dago. Atxiloketa Zentroak eta Errefujiadu Guneak bisitatu doguz. Atxiloketa Zentroan dagozanak Turkiara bialduko dabez. Leku guztietan hotel okupatuak dagoz. Atenasko City Plaza hotela, esate baterako, hotel okupatua da eta 400 persona inguru dagoz han biziten.

Atxiloketa Zentroetan delituen bat egin dauan jentea dago?

Hiru espazio mota dagoz. Batzuk leku itxiak dira kartzelen modukoak. Gero Atxiloketa Zentroak dagoz eta handik jentea ezin da sartu eta urten; azkenik, Errefujiadu Guneak

dagoz. Hortik jentea normalidade osoz sartu eta urten daiteke. Danetan prekariedade handia dago.

Bisita egitean shock modukoa sentidu genduan, behin eta barriro errepikatzen zan itaun bat entzuten gendualako: "zergaitik ni? Zergaitik tokau jata niri?". Inork ezin dau aukeratu non jaio, guztiz aleatorioa da. Loteria bat da Somalian zein Euskal Herrian jaio, baina eskubideak danontzat izan behar dira. Gobernuak legearen kontra jokatuten dabiz, ze Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibersala sinatuta daukie danak, eta horreen arabera, persona guztiak gura daben lekuan ibili edota biziteko eskubidea daukie.

Hori dala-eta, jenteak egiten dauan itaunak ez dauka erantzunik. Bardin-bardin geuri tokau ahal jakun. Oso mingarria da ikustea euren herrialdeetan muturreko egoera latza sufridu ondoren, ezin dabela handik iges egin. Errefujiadu Guneetan ghettoak egiten dabez, gerrea apaldu edo egoera hobetu ahala euren herrialdeetara bueltetako, sano baldintza txarretan dagoz eta.

Errefujiadu zein migratzaileen-tzat egoera ikaragarri txarra da. Migratzaileak, azken finean, errefujiadu ekonomikoak dira.

Karabanak eragin politikoa izango dau? Balioko dau errefujiaduanako politikak aldatuteko?

Errefujiaduakazko alkartasun mobimentua puzzle bat modukoa da. Batzuek lan boluntarioa egiten dabe, beste batzuek aktibismoa... Gu Greziara aktibismoa egin eta gertatzen dana salatutera joan gi-



Jabi Sagarna, Mikel Zuluaga eta Arantza Iruretagoiena eta Edorta Alonso euren seme-alabakaz.

nan.

Gure artean kohesino handia sortu da. Sano jente desbardina egon gara karabanen. Eta bitxia da ze normalean pentsetan da antzeko jenteak lortzean dauala kohesino. Gure kasuan, oso desbardinak izanda be, loturea sortu da. Ezbeharrak batu egiten dau jentea eta desbardintasun ideologiko edo beste motatakoak ez dira kontuan hartzean. Katekesiko jentea egon da, anarkistak, EAJ-PNVtik hur dagoana... Errefujiaduen ezbeharrak batu egin gaitu. Eta hori oso inportantea da, gizarte mobimentuak zeharkotasun horretan egin behar dau lan eta.

Karabanen egon garan guztiok talde trinkoa sortu dogu eta bakotzak bere herrian edo bere mobimentuan transmitiduko dau ikusitakoa: tragedia itzelezkoa dala. **Libre segiduan itxi arren, karaban joandako batzuk atxilotu be egin ebazan Greziako poliziak, ezta?**

Idomenin ekintza bat egitera joan ginan eta 5 persona atxilotuak izan ginan. Ez zan prensan agertu ordu erdi baino ez zalako izan. Ekintza baketsua zan, Ongi Etorri Errefuxia-

tuak egiten dituan guztiak legez. Bere burua progresistatzen daukan gobernu batek holan jokatzea mingarria da. Greziako gobernu lotuta dago Europa eta bere ideologiaren artean. Oso gatazka da eurentzat, Europak presinoia egiten deutso eta Greziak ez daki zer egin.

Europak presinoia egiten dau akordio batzuk beteteko, baina ez danak. 25.000 errefujiadu hartzeako akordioa ez dabe bete herrialde gehienak eta hori betetea ez dau exijiduten Europak.

Lotsagarria da. Errefujiadu Guneetan konturatzen zara Europaren hipokresiaz. Danak botaten dabe pelotea bestearen teilatura. Gizarte mobimentuak urtenbide bila Eusko Jaurlaritzara jo ezkerre, Espainiako gobernura joteko esaten dabe eta Espainiako Gobernuak Europara jo behar dala. Egoera ez dabe konponduten apropos. Jentearen bizitzagaz jolasean dabiz, eta horixe da guk salatu gura doguna; horretarako joan ginan Greziara.

Orain Atxiloketa Zentroetatik Turkiara eroan gura dabe jentea. Ikaragarria da.



Jenteak "zergaitik niri?" itauntzen dau, baina itaunak ez dauka erantzunik

MENDIA


Areatzako Mendi Martxeak ibilbide bi izango ditu aurten

Erredakzioa

Areatzako Mendi Martxearen bosgarren edizioa izango da urri lehenengoaren 10ean, eta aurten lehenengoz, ibilbide bi izango ditue aukeran partaideak. Ibilbide luzeak 27,5 km. eta 1.500 metroko desnibela ditu eta laburrak, 17,5 km. eta 800 m.ko desnibela. Izena emoteko epea zabalik dago eta <http://areatzakomartxa.blogspot.com.es> blogean edo facebookean emon daiteke. Beste nobedade bat be izango dau martxeak: martxan bertan egingo dan Argazki Lehiaketea, hain zuzen be.

Martxa luzea "igazkoaren antzekoa da, baina goiko zatian, Kakaneberetatik Kereizekoatxara aldatu egingo da. Pagomakurrea beste bide batetik joango dira partaideak eta gero, Pagomakurretik Kereizekoatxako ingurura markau barri dan PR-BI9 tik bajatuko dira" azaldu deutso BEGITURI Xabier Iturriaga antolatzaileak.

Martxa laburra, Bikotzganen hasi eta Mendigana inguruan bat egingo dau martxa luzeagaz. "Aukera hau politena dala uste dogu, holan, martxako partaide guztiak, martxako goiko zatia eta batez be, Areatzako neberoa ezuteko aukerea izango dabe".



Kartela.

Horniketa puntuak Mendigana eta Pagomakurre inguruan egongo dira. Martxearen amaieran, parrilladea egongo da partaide guzientzat.

Altuerrea marketan

Aurten, toponimiagaz jarraitzeaz gainera, mendi puntetan eta Areatzako neberoa altuerak ipiniko dabez antolatzaileak, eta martxa luzea 5 kilometroro markauko dabe erreferentzia moduan. Lan hau guztiau, Areatzako martxa antolatuteko sortu dan lantaldeari esker egingo da.

Martxea goizeko 08:00etan abiatuko da Areatzako plazatik.

LASTO ALTXATZEA

Jon Loiolak irabazi dau Lasto Altxatze Txapelketea

Erredakzioa

Garagarriaren 23an jokatu zan Arrigorriagako plazan Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketea eta Jon Loiola kirolari dimoztarrak irabazi eban txapela aurten bigarren, 21 jasoaldi eginda. Bigarren, Getxoko Unai Ardeok eta hirugarren, Arrigorriagako Gotzon Abasolok egin eben.

Igaz be Jon Loiolak irabazi eban Bizkaiko Txapelketea eta aurten be txapela defendiduteko asmoagaz joan zan Arrigorriagara eta errez lortu eban bere helburua. Dimako kirolariaren hurrengo erronkak urri lehenengoan izango dira. Urri lehenengoaren 3an, Donostian, Zazpi Herrialdeen arteko Herri Kirol Txapelketea jokatuko da eta urri lehenengoaren amaieran Euskal Herriko Txapelketea.



Jon Loiola txapelagaz.

RAIDA

Europako Raid Txapelketan Agirreren taldea hirugarren

Erredakzioa

Arteko Gaizka Agirre Europako Abentura Raid Txapelketan izan da Euskal Raid-Aralar Kirolak taldeagaz. Txapelketea garagarriaren 20tik 24ra jokatu zan Aran bailaran eta euskaldunak hirugarren egin eben talde suediar eta txekiarraren atzetik. Gaizka Agirregaz, Imanol Garaizabal Elgoibarkoak eta Beñat Doyharzabal eta Maitane Garmendia ibartarrak osotu eben taldea.

Lau egun eta hiru gaueko lasterketea izan zan eta hainbat kirol modalidade egin behar izan eben: mendi bizikletea, trekkinga, arroiak jeitsierak, kayak eta paddle surfa, beste batzuen ar-

tean. Veilha eta Lleida artean izan zan ibilbidea eta 500 km. tik gora euki dauz proba gogor honek. Lasterketea non-stop formatukoa izan zan, hau da, geldialdiak egi-tea ez da derrigorrezkoa.

Arteaztarrak lortutako postuagaz "pozez gainezka" dagoala adierazo dau bere facebook-ean, "sinistu ezinik".



FUTBOLA

Andra Mari torneo Igorren

Erredakzioa

Andra Mari jaien inguruan, Arratia Futbol Taldeak antolatuta XXX. Andra Mari Saria jokatuko da Urbieta zelai barrizatuan.

Lehenengo partidua abuztuaren 12an izango da eta etxeok Alaves B taldearen kontra neurtuko dira. Hurrengo egunean, hilaren 13an, Bermeok eta Erandiok jokatuko dabe finalerako pasea. Finala hurrengo egunean izango da, domekan, Andra Mari Eguneko bezperan eta aurreko partidua bietako irabazleak jokatuko dabe Andra Mari Saria. Partidu guztiak 18:00etan izango dira.

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN ★ SOLARES
Pelig Mendietan 73-48530123-40A, Bakaia
Tel: 600 480 800 / 600 500 707

ZEKUTZE
JATE ETXEA
Sabinu Arrieta, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekute@jateetxea.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAI

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 2.
48110 Igorre (Bizkaia) Telefono: 94 673 61 75

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Arratia
Urbide eta zeberiko
euskerea
eta kulturearen alde

Egin zaitez zeu be **Degitu-Lagun**

Hamabostero
Degitu zeure etxean

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ateratako produktuak.

Zertu Kultur Elkarteak
Berrito Plaza 21, 48112 Artea

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria:
Telefonoa:
E-posta:
Urteko kuota aukeratu: 35€ 55€ 75€

begitu
milla mila milaka

FUTBOLA

Arratia klubeko andrazkoen taldea Bigarren Mailara igon da, klubaren historian lehenengoz



Arratia Futbol Taldea.

Erredakzioa

Arratia Futbol Taldeko andrazkoen ekipoak gora egin dau eta Futbol estataleko Bigarren Mailan jokatu dau datorren denporaldian. Lehenengo aldia da kluba maila horretara heldu dana. Holan, Arratia taldeko andrazkoak, Logroñes, Gasteizko Neskak, Eibar eta Athletic Bgaz neurtuko dira, Bigarren Mailako talde batzuk aitatzearen, eta Arratia izena estatu osoan zehar eroango dabe.

Aurreko denporaldian, bigarren egin eban Arratiak Euskal Ligan. Estaduko Bigarren mailara igo behar eban talde batek uko egin eutsan igoteari eta Espainiako Futbol Federazinokoak Euskal Federazioagaz jarri ziran kontaktuan igoera opatzeko. Gasteizko Neskak taldeak irabazi eban Euskal Liga eta eurak zuzenean igo ziran Bigarren Mailara; horregaitik, Arratia taldeari eskeini eutsen igoera eta Arratiak onartu egin dau. David Anta entrenatzaileak lortutakoagaz harro dagoala dino eta honek dakarren erronkari aurre egiteko prest. Horretarako

taldeak daukazan armak, "jokalarien arteko batasuna, lan gogorra eta ilusinoa" dirala dino.

Taldea

Igazko denporaldian jokatu eben jokalaria bik itxi egin dabe taldea; Ana Goitiak futbola itxi dau eta Nerea Urgoitik, Pauldarrak taldean jokatu dau datorren denporaldian. Fixaje barri bi egin ditu Arratiak momentuz, Arantza Gallastegi eta Olatz Rivera. Biak Getxoko Bizkerre taldeetik datoz. Eta aurreko denporaldian kade-teetan jokatu Maria Diazek eta Nerea Beitiak be jokatu dabe taldean.

Honeexek dira, beraz, momentu honetan, 2016-2017rako Arratia taldeko jokalariaik: Agate Landajo, Alaitz Zelestino, Amaia Alday, Arantza Gallastegi, Arrate Arrieta, Deiene Alves, Enara Gutierrez, Gentzane Alday, Haizea Cerrada, Irati Sagasti, Iratxe Bernaola, Izaro Zurinaga, Izaskun Martin, Jone Etxebarria, June Ramos, Maite Jaio, Maria Diaz, Miren Gil, Natalia Torralba, Naia Totorika, Nerea Beitia, Olatz Rivera eta Yaiza Bueno.

FUTBOLA

Bedar artifiziala aldatu eta beste hobekuntza batzuk egin dabez Urbietan

Erredakzioa

Bedar artifiziala aldatu, eta futbol zelaia errugbirako be egokitzeko lanak egiten dabiz Urbietan futbol zelaian. Lanok amaitzeko epe-muga abuztuaren 8an ipini dau Udalak, entrenamentuak egin eta andramarietako torneo bertan jokatu ahal izateko.

Bedar artifizialak 12 urteko iraupena izaten dau eta Urbietan futbol zelaiko bedarra aldatutea toketan zan aurten. Zelai artifizialak asko hobetu dirala eta kalidade handiko bedarra ipini dabela dino Beinat Anzola Igorreko alkateak.

Betegarria be naturalagoa izango dala dino. "Orain arte kautozko betegarria euki dau zelaiak eta orain amaieran koko eta kautozko nahasketa bat eukiko dau. Holan, ez da hainbeste berotuko eta ikututeko be hobea izango da, naturalagoa" dino alkateak.

Errugbi partiduak bertan jokatu ahal izateko be egokitu dabe zelaiak. Gitxitan jokatu dira errugbi partiduak Urbietan, ze futboleko entrenamentu eta partiduak beti egoten da hartuta. Baina, torneoaren bat jaietan, edo beste inoz partiduak jokatu aukerea egongo da. Horretarako insta-

lazioak ipini dabez: paluak eta lurrari eusteko guneak daukaz zelaiak, eta neurriak jagokienean, Udalak errugbi federazioagaz egin eban berba, neurriak egokiak izan daitezkan. Bedarraren tamaina futboleko zein errugbian jokatu egokia izango da.

Beste hobekuntza batzuk be izango ditu Urbietan zelaiak; markagailu barria eta beroketak egiteko guneak, barbarako.

Udalak ordainduta

Udalak 207.942 eurotan atera eban kontratazioa eta 204.490 eurotan adjudikau zan. Udaleko



Urbietan zelaia.

diruagaz egin dira lanok. Proiektua BFAko kirol ekipamentu eta azpiegiturak bultzatzeko diru

laguntza deialdi batera aurkeztu eben eta 12.000 euroko laguntza izan dau.

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekoirak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu

Fisioterapia Zentroa Igorre

Ellexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08

Andra Mari Klinika

Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1, Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

Kili-Kili

Umeen denda
94 673 63 51

Agire Lehendakaria 10
Igorre
kilkiligorre@gmail.com

ARA OTZ

Lanegun O Jabetzen!

OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LERIOA (Bizkaia)
Tels. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

ONDAREA

Arteako Santiago ermiteak bonbona bategaz egindako kanpaia estreinau dau**Erredakzioa**

Orain dala urte bi baino gehiago ostu eben Arteako Santiago ermitako kanpaia eta harrezkerotik kanpaia barik egon da ermitea. Auzunekoak kapai-hotsaren hutsunea somatu dabe. Hori dala eta, auzuneko jubiladuen biaje baten, butano bonbona bategaz edo, kanpaia egiteko idea sortu zan. Pentsau eta egin. Luis Mari Estankonak butano bonbona bat hartu eta ermitarako kanpaia egin dau. Holan aurten, kanpai hotsak entzun dira auzunean Santiago bezperan.

Bonbona bategaz kanpaia egiteak alde on bi daukaz. Alde batetik ez dala dirurik kostetan; eta bestetik, kanpaia hori ez dabela ostuko. Etxean eukazan gauzak egin dau Estankonak kanpaia. "Bonbona bat hartu eta lehenengotik zulo bat egin eta hutsitu egin neban, peligrurik ez egoteko. Gero ebagi egin neban. Ondoren eskegi, eta mailu bategaz jo neban zelako soinua eukazan ikusteko eta ondo egoala iruditu jatan" azaldu deutso BEGITURI. Butano koloreak inpakto lartxo egingo ebalu pentsautu pintau egin eban gero. Hurrengo pausua izan zan "formea emon ardatzari,

jiretako, errepiketa emoteko; hau da, klin-klan, klin-klan egin dagian eta ez fijoak egiten dauan moduan tan tan tan."

Aspaldi ez dala, obra bat egin eban Estankonak etxean, balkoiko barrak aldatu ebazan, eta barra ereduak eukazan etxean. Hareetako batek kanpai baten mihinarenean forma eukan eta haxe ipini eutsan kanpaiari.

"Eta jirau dagian, bonbonearen pisua konpensetako ardatzaren beste alderdian egur zati batzuk behar ziran. Haretx zati bat be baneukan eta harexegaz egin neban. Gero, arbol baten ipini eta probea egin neban eta ondo iruditu jatan".

Santiagoetan estreinaldia

Kanpaia Santiago eguna baino astebete arinago ipini eben ermitan eta bezperan estreinau. "Bezperan zortzirak aldean kanpaia joteko ohiturea egon da. Badago neska bat San Migel eta Santiagoko kanpaiak jotzen dauzanak eta atzen urteotan Santiagoko kanpaiaren doinuaren hutsunea egon da. Aurten ez da egon hutsune hori. Eta jentea pozik" dino Estankonak.

ONDAREA

Otzerimendiko kofradiak isiotuko dau karobia San Justo egunean aurten

Zapatuan, abuztuaren

6an, 11:00etan hasiko da ketan karobia.

Jon Urutzurtu

Aurten be, azken hogei urteetan moduan, San Justoko karobia ketan ikusteko aukerea izango da abuztuaren 6an, zapatuan. Goizeko 11:00etan isiotuko dabe karobia, eta urteetan zehar ahaztuta eta amatauta egon dan ke zurixka San Justoko haretxen artean igongo da Gorbeia mendiaren tontorra bilatuz. Domeka eguerdirantza, kare bizia oka egiten hasiko da labe-ahoa.

Igaz arte, Ipizki Taldea arduratzen izan da karobia martxan ipintean, Juan eta Julian Aranaren zuzendaritzapean, baina 2016an Ipizkik bere hogei urteko ibilbideari amaierara emotea ebatzi dau eta Otzerimendiko kofradia arduratu da karobia lanean jartzeaz.

Karobia isiotu ondoren, haimeketakoa egongo da San Justora hurreratzen diran guztientzat: urdaia, pamitxea eta ardaoa.

**Karobia kargetan.****Mezea zapatuan**

Aurten mezea zapatuan, San Justo egun berean izango da, 12:30ean. Mezearen ostean maiordomoak barauskarria —ardoa zuria eta galletak— bananduko dauz.

14:30ean, auzo-bazkaria egingo da San Justoko haretxpean. Bazkari herrikoi horretan edozeinek parte hartu daiteke, aurretik izena emonda. Horretarako, abuztuaren 3a baino lehenago telefonora honetara deitu beharko da: 94 673 92 50

edo 679 881 741.

Hurrengo egunean, abuztuaren 7an, domekan, jaiak jarraipena eukiko dau eta 12:30ean herriko jantziaren erakustaldia izango da ikusgai. Goizean zehar Paella eta Tortilla Txapelketak egongo dira. Eguraldia lagun eta ohiturea jarraituz, asko izango dira San Justoko haretxpean bazkaltzen geratuko diranak.

Arrastian 17:30ean Mus Txapelketea egongo da eta 18:00etatik aurrera Bola Txapelketea jokatu da.

TRIKITILARI TXAPELKETEA

Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketearen finala Zeanurin**Erredakzioa**

Abuztuaren 15ean, Euskadiko Trikitilari Gazteen XXXV. Txapelketearen finala jokatu da Zeanurin. Arrastiko seiretan izango da eta urtero lez, kanporaketetan sailka-

tutako sei bikoteak hartuko dabe parte. Soinu txikia eta panderoa jo beharko dira eta jotzaileak 22 urte baino gutxiago izan behar dabez.


Finalistak lau pieza joko dabez. Jotea, porrusaldea, fandangoa eta arin-arina. Irabazleak 400 euro eta

trofeoa jasoko dabe, bigarrenak 310 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 275 euro eta trofeoa. Bizkaiko bikote onenarentzat be saria egongo da, 120 euro eta trofeoa.

Harrobia Gipuzkoan

Igaz Julen Alonso eta Eneritz Aulestia izan ziran txapeldunak, Gipuzkoatik etorritako bikotea, finalean egon ziran beste guztiak legez. Partaideak 13 eta 19 urte bitartekoak izan ziran eta kalidade aldetik "maila gorantz doala" eta badala "harrobia eta etorkizuna" esan eben kritikoa igaz.

**Santiago ermitako kanpai barria.**



Udarako BEGITUREN kamiseta barriak salgai

10 eurotan, Begitu-lagunak 8 euro

Bialdu mezua begitu@topagunea.com helbidera neurria adierazoz



MEMORIA HISTORIKOA

Lemoatxeko gudarien omenezko diskoa kaleratu dau Lemoak



Hauxe da gure kantua diskoaren aurkezpena.

Garagarrilaren 26an, Lemoako Udalak, Lemoako gazteak memoria historikoa gaitzat hartuta prestatu daben

Hauxe da gure kantua izeneko diskoa aurkeztu eban.

Bertan, zortzi abesti, poesia bi eta bertso bat jasoten

dira Arratia eta inguruko artistak sortu eta kantautakoak.

Diskoa gazteak eurak salduko dabe Lemoan eta

udaletxean be erosi ahal izango da 12 eurotan.

Erredakzioa

Hauxe da gure kantua prestatzen eta grabetan gazteak eurak ibili dira familiakoen eta herriko jentearen laguntzeagaz. Sorkuntza lanak, Arratia eta inguruko artistak egin dabez. Holan, berbarako, diskoari izena emoten

deutsan kantea Borja Estankonak sortutakoa da eta berak kantetan dau. Bere anaia Igor Estankonak be grabau dau diskorako egingdako poema bat; Eskean Kristö taldearen kantu bat dago, eta Arkaitz Estiballes, Rafa Ugalde eta Ibon Izaren lanak be jasoten dauz diskoak, beste lan interes-

garri batzuen artean. Grabaketea, Taom enpresearen estudioetan egin da; Taom-eko Jagoba Ormaetxeak ekoizpena, grabaketea, konponketea eta nahasketea egin ditu eta Josu Torrealdayk diskoaren diseinua.

Lan honen izakerea, errazoa eta helburua diskoan bertan azaldu dabe: "Lemoako herriaren egungo askatasun, bizikidetzeta eta alkartasunaren oinarrien lekukotasuna ezagutarazo eta gogoratu arazoten jarraituteko, 1936ko Gerra Zibilean Lemoatxen egondako gudarien omenezko lana" dala dinoe, eta diskoak Lemoako Udalaren Egia, Justizia eta Erreparazioaren alde beharrian jarraituteko konpromisoa erakusten dau. Izan be, Lemoako Udala 2012ko maiatzean hasi zan memoria historikoa landuten. Besteak beste,

Auzolandegiak egin dira Lemoatxeko lubakiak errekueretako eta hainbat gaztek hartu izan dabe parte eurretan, gehienak kanpokoak. Herriko gazteentzat be gaia erakargarria izateko, memoria historikoa landuteko beste bide batzuk zabalduen hasi zan Udala eta gazteen gogoetatik sortu zan diskoaren idea.

Elkartruke programea

Orain dala bost urte, hurrengo urteetarako proiektu bat egin eban Lemoako Udalak, Memoria Historikoa, Gazteria, Alkartasuna eta Kooperazioa abiapuntu hartuta "Hezkuntza ez formala zan proiektu guztiko oinarria. Proiektua diseinatu eta gero, arlo bakoitxak bere bidea jarraitu eban eta aurten proiektu horretako hanka bi lotzea ebatzi genduan: gazteen Elkartruke programea eta memoria historikoa" azaldu eban Saioa

Elejabarrieta Lemoako alkateak diskoaren aurkezpenean.

Elkartruke programearen barruan Memoria Historikoa eta Giza Eskubideak landu ditue aurten 16 eta 21 bitarteko gazteak. Partaideak, Alemaniara joango dira abuztuaren Berlingo eta Frankfurtoko alkarteetako gazteakaz gerrakaz erlazioautako gaiak landu eta informazioa alkarren artean banandutera. Bijaie hori diskoagaz finantziatu gura dabe.

Lemoako gazteak orain dala lau urte hasi ziran parte hartzean Elkartruke Programan. Lehenengo urtean Pakea eta Bizikidetzeta landu eta Irlandara joan ziran; bigarren urtean, Kulturantzatasuna eta Portugalera; hirugarren urtean, Parte hartzea eta Eskoziara joan ziran eta aurten Memoria Historikoa eta Giza Eskubideak eta Alemanian amaituko dabe proiektua aurtengo bijaieagaz.

Hauxe da gure kantua

"Bertsoa". Letrea: Igor Menika. Abotsa: Nere Sanchez.

"Borroka luze bat". Eskean Kristö.

"Nagasaki Dresde Gernika". Letrea eta abotsa: Igor Estankona.

"Memorian gordeak". Letrea: Unai Santos. Abotsa: Unai Santos, Jagoba Ormaetxea eta Mikel Bizar.

"Ilunpeko lilia". Letrea: Rafa Ugalde. Abotsa: Jagoba Ormaetxea.

"Andikona 1936". Mikel Urdangarin.

"Itargia ostondu zan". Letrea: Ibon Iza. Abotsa: Aroa Etxebarria.

"Saturraren 1938-1944". Letrea: Arkaitz Estiballes. Abotsa: Naroa Gaintza.

"Amamaren begietan". Letrea: Arkaitz Estiballes. Abotsa: Rafa Rueda. Rafa Aceves eta Aritz Aranbururen laguntzeagaz.

"Lemona". Letrea: Telesforo Monzon. Abotsa: Eguzkiñe Barandika.

"Haritzaren memoria". Beira.

"Hauxe da gure kantua". Letrea: Borja Estankona. Abotsa: Borja Estankona.

ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19
Amorebieta - Lemoa errep.
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06
Fax. 946 31 20 26
alkizabal@alkizabal.net

www.alkizabal.net

Basoak garbitzeko makineria

ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKIRUA ETA SALMENTA

AGENDEA

**ABUZTUAK 3
ZEANURI**

San Justo jaietako auzo bazkarirako izena emoteko atzen eguna. 94 673 92 50 eta 679 881 741 telefonoetara deituta.

**ABUZTUAK 6
DIMA**

Artaun auzuneko San Bizente jaiak. 19:00etan, txupina eta jaien hasikerea; 19:30ean, txixi-burruntzia, urdaia eta pamiñea doazen guztientzat; 20:00etan, Bola Txapelketea. XIX. Lourdes Sorraluze Saria; 20:30ean, erromeria.

ZEANURI

San Justo jaiak Otzerinmendin. 11:00etan, Karobia isiotu; 12:00etan, barauskarria; 14:00etan, auzo bazkaria.

**ABUZTUAK 7
DIMA**

Artaun auzuneko San Bizente jaiak. 12:00etan, euskal mezea; 13:00etan, triki poteoa. Bertsolariak: Beñat Ugartetxea eta Etahun Lekue) eta trikitixea; 19:00etan, herri kirolak. Dima vs Mutriku; 20:30ean, zozketea.

ZEANURI

San Justo jaiak Otzerinmendin. 12:00etan, mezea. Ondoren herriko jantzarien erakustaldia eta barauskarria. Goizean zehar Paella eta Tortilla Txapelketak (Paella okelazkoa izan behar da). 14:00etan, paella eta tortillen aurkezpena. 17:30ean, Mus Txapelketea. 18:00etan, Bola Txapelketea.

ZEBERIO

Jaiak Argiñao auzoan. 13:00etan, mezea eta ondoren barauskarria.

**ABUZTUAK 8
DIMA**

Artaun auzuneko San Bizente jaiak. 11:00etan, auzoan hildako guztien aldeko mezea; 12:30ean, Mus Txapelketea; 12:30ean, umeen jolasak eta antzerkia; 17:00etan, Briska Txapelketea; 19:00etan, Tortilla Txapelketea; 20:00etan, Igel

**Larregi eta WAS Areatzako jaietan**

Abuztuaren 26an, 22:30ean, Lemoako Larregi eta Getxoko We Are Standard (WAS) izen handiko taldeak joko dabe Areatzan. Getxokoak aurten Gau Ama izeneko diskoa atera dabe eta bertako kantu baten, Arratiako Maurizia, Leon eta Basilioren egiten deusez erreferentzia. Ingelesean kantu arren, euskal musika indie egiten dau WAS taldeak, Manchesterreko soinuari euskal folkloreko elementuak sartuz eta Mikel Laboaren lekeitoai edota Maurizia, Leon eta Basilioren erreferentzia eginez.

Taldeak hainbat sari jaso ditu, tartean 2009ko MTV saria Espainiako bandarik onenari. Espainian, Erresuma Batuan, AEBn, Frantzia, Suedian, Kanadan, Herbehereetan, Alemanian eta Portugalen, besteak beste, jo dau We Are Standard taldeak.

Txapelketea; 21:00etan, jai amaiera eta txokolatea.

**ABUZTUAK 10
BEDIA**

Murtatzako jaiak. 12:00etan, mezea Murtatzen. Ondoren barauskarria eta trikitixea eta Mus Txapelketea; 17:00etan, Briska Txapelketea.

LEMOA

Azurrekako jaiak. Mezea San Lorentzo ermitan; 12:10ean, barauskarria trikitilariakaz; 12:30ean, erromeria; 18:00etan, umeentzako jokoak eta Igel Txapelketea.

ZEBERIO

Jaiak Elizondo auzoan. 12:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

**ABUZTUAK 12
IGORRE**

18:00etan, andramarietako futbol torneoko partidua Urbietan: Arratia-Alaves B.

**ABUZTUAK 13
IGORRE**

18:00etan, andramarietako futbol torneoko partidua Urbietan: Bermeo-Erandio.

ZEANURI

Andra Mari Jaiak. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

**ABUZTUAK 14
IGORRE**

18:00etan, andramarietako futbol torneoko finala Urbietan.

**ABUZTUAK 15
DIMA**

Andra Mari Eguna Olazabalen. 12:30ean, Txakoli Eguna. 19:00etan, *Ehun argazki mende bat* argazki erakusketea.

IGORRE

10:30ean, XXVIII. Andra Mari Saria: Gazte mailako txirindulari lasterketea; 12:30ean, mezea; 13:15ean, barauskarria Goiko Plazan; 16:15ean, Briska, Mus eta Tute Txapelketea Beheko Plazan (bikoteka). Izen emotea 16:00etatik 16:15era; 18:00etan, Igel Txapelketea Beheko Plazan. Izen emotea 17:30etik aurrera; 19:00etan, Jokaldi taldeagaz

erromeria. Ostean, DJ Ismael.

ZEANURI

18:00etan, Euskadiko Trikitilari Gazteen Txapelketearen XXXVI. edizinoaren finala

ZEBERIO

Zeberioaneko jaiak. 13:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

**ABUZTUAK 16
DIMA**

San Roke Eguna Olazabalen. 08:00etan, Ilunbera ibilbidea. 12:00etan, meza nagusia eta umeentzako jolasak. 13:30ean, nagusien Bola Txapelketea. 17:00etan, umeen Bola Txapelketea (6-9 urte eta 10-12 urte). 18:00etan, Irrien Lagunak. 19:30ean, umeentzako baloiak eta txokolatea. 20:00etan, zozketea.

BEDIA

12:00etan mezea San Roke ermitan. Ondoren, barauskarria, trikitixea eta jantzak.

**ABUZTUAK 17
DIMA**

San Roke Txiki Eguna Olazabalen. 12:00etan mezea. 14:00etan, auzo bazkaria. Bazkalostean erromeria.

**ABUZTUAK 23
AREATZA**

14:00etan, San Bartolome Jaiak. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

**ABUZTUAK 24
ZEBERIO**

Jaiak Urizar auzoan. 13:00etan mezea eta ondoren barauskarria.

**ABUZTUAK 27
AREATZA**

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, saguzarrak. Berbaldia eta urtekerea bertako saguzarrak ezetuteko Lide Jimenez adituaren eskutik.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**BIZIKLETEA SALGAI**

Focus Black Forest bizikletea salgai. Urkulea: Rock Shox Recon Silver RL 100 mm. Aldagailu eta biela: Shimano Deore XT. Osagaiak: Concept SL. Jantak: DT Swiss. Gurpilak: Mountain King. Barri-barria. 600 euro. 688 602 516 (Mikel).

PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m, 3 logela, komun 2, garajea eta trastelekua. Interesautu egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

MAKINARIA SALGAI

Bedarra zabalduko eta batzeako makinak saltzean dodaz. Interesautu deitu telefono honetara 628 041 526.

**DANERIK
BEHAR BILA**

Ettxeko lanak egiten dodaz, 08:30etik 16:00ak arte. Koxeduna. Dimoztarrak. Telefonoa 634 438 725.

BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldzikariak

bazkideak behar ditu. Interesautu 649 979 115 telefonora deitu.

PARKING PARTZELA ALOKAIURUAN

Igorren, Lehendakari Agirre kalean, parking partzela bi alokairuan. 30€ bakotzak. 659 395 911.

OPARITZEN DA

Urte t'erdiko artzai txakurra oparitzen da. Telefonoa: 635 207 386.

GARRAIOLARIA BEHAR DA

Enkarguak etxera eroateko garraiolari autonomoa behar da. Deitu 94 673 60 55 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1


BEGITUKO kamiseta bana.Begoña Amundarain (Artea)
Klara Astondo (Areatza)Zerturen
argitalpenak
jasoko dozuz,zozketetan
sartuko zara.

BEGITUK 13

urte eta
ehundaka
lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

- 1.- Min daukagunean dinogu. Giltz.
- 2.- Letra bat. Inontz. 3.- Narru. Emea ez dana.
- 4.- Inozo. Bat erromatar.
- 5.- Ur-bazter. 6.- Oxigenoa. Begiakaz egiten dogu. 7.- Helioa. Deus.
- 8.- Andra izena. Letra bat.
- 9.- Sutegia. Musika nota.

GOITIK BEHERA

- 1.- Zati. Basati. 2.- Erdiko bokala. Zu izenordaina indartua. Modua.
- 3.- Albiste. Oinarrizko lau odol taldeetako bat. 4.- Itaunketa.
- 5.- Arsenikoa. Ahoskatu. 6.- Ahateak. Japoniako uria. Mila erromatar.
- 7.- Ostro. Barre.



Topau zazpi jantza mota desbardin.

S	O	L	E	R	O	A	N	B	A
E	G	A	R	R	O	G	A	L	E
I	R	S	A	N	B	A	B	I	R
M	E	R	K	O	P	G	I	L	I
S	A	B	N	U	R	M	O	R	E
I	K	N	A	D	U	E	M	A	S
R	O	S	B	O	I	R	L	F	U
O	S	D	A	O	B	E	K	O	R
G	T	U	R	R	A	N	T	E	B
O	P	X	T	A	N	G	O	A	E
L	E	M	O	Z	T	E	K	E	R
I	S	T	E	T	X	A	N	O	T
L	E	G	O	M	I	D	R	R	A
K	O	U	B	E	R	S	A	N	I
U	S	T	E	J	I	K	A	L	A

AKI MI KO

Ka i l o



umean moda
seim
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bixara egin eta trukanduten dogu.
-Rober 630 743 543 -Manuel 661 848 793
Lehendakari Agirre 9, behe IGORRE

AKEITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behe IGORRE
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
KOSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38
IGORRE
TLF. 94 631 92 00

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

ZUZENBIDE
ASEGURUAK:
AUTOAK
ETXEBIZITZAK
DENDAK
ISTRIPUAK
BIZITZA...
ABOKATUAK:
ZUZ. ZIBILA
KONTSUMO ZUZ.
ADMINISTRATIO ZUZ.
INGURUGIRO ZUZ.
AHOLKULARITZA:
LAN ZUZENBIDEA
ZERGAK
KONTABILITATEA
Tf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behe IGORRE (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-49-54

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: urrozul@euskalnet.net

UCKAIA TALDEA

Sorpresaz beteriko lehenengo maketea aterako dau Uckaia taldeak

Barrikuntzaz beterik dator Uckaia taldea: kamisetak, maketea, eta abar. 2014. urtean hasi eta ordutik arrakastea besterik ez dabe lortu arratiarrak. Oraingoz, kontzertu bi finkatuta daukiez udan: abuztuaren 13an Zeanuriko jaietan eta 25ean Areatzako jaietan. Gogotsu ibili eta lan handia egin eta gero maketea grabauko dabe Hamarrecords estudioan.

Aitor Ipiñak (bajua eta abeslaria), Ager Barraganek (bateria), Lander Txabarrik (gitarra eta koruak) eta Lander Elorriagak (gitarra) osotuten dabe taldea.



Rakel Aldekoa Diez

Zergaitik Uckaia izena?

Zelan pentsau zenduen taldea sortzea?

Aitor Ipiña: Historia guztia 2014. urtean hasi zan, Agerrek eta nik, batek bajua eta besteak bateria jotzen genduan eta aste-goinetan alkartzen ginan "txapuzak" egiten, jo gura gendualako. Irakasleak beti esaten euskuen Institutuko Aste Kulturalen joteko. Guk beti ezetz esaten genduan baina urte baten baietz esan genduan. Lau abesti sortu genduzan ensaiatzen dogun gelan eta horreek jo genduzan Aste Kulturalen. Lander Txabarrik be gugaz jo eban eta bere lehen aldia izan zan gugaz batera jotzen. Guztioi gustau jakun esperientzia eta, beraz, abesti barriak egiten hasi ginan kontzertu gehiago jotzen, eta abar. Gure lehenengo kontzertua talde gisa, Areatzako Gaztetxean jo genduan. Izen desbardinak euki doguz, baita abeslari desbardinak be, baina gaur egun Uckaia Ager Barraganek, Lander Txabarrik, Lander Elorriagak eta nik osotuten dogu.

Ager Barragan: Egun baten klasean marrazkiak egiten neban bitartean burura etorri jatan Uckaia izena. Ez dakit zer esan gura dauan baina izen polita zala pentsau genduan.

A. I.: Agerrek esandakoa baino lehen, Filosofia liburu baten "ekaia" izena ikusi genduan baina izen hori existitzen dan musika talde baten izena zala konturatu ginan. Beraz, WhatsAppeko taldetik "ekaia" izena bidali eban batek. Beste batek, "e" beharrean "u" jarteko esan eban eta ukaia geratu zan; baina izen "pro"agoa izateko "ck" ipintea ebatzi genduan. Atzenean, Uckaia.

Zein izan da gehien gustau jatzuen kontzertua orain arte?

A.I.: Nik kontzertu bi daukadaz asko gustau jatazanak. Lehenengo kontzertua talde gisa, Areatzako Gaztetxean jo genduan. Izen desbardinak euki doguz, baita abeslari desbardinak be, baina gaur egun Uckaia Ager Barraganek, Lander Txabarrik, Lander Elorriagak eta nik osotuten dogu.

Bigarrena, aurten Igorreko jaietan eskeini doguna oso "guapoa" izan da. Gainera, gure gustuko talde baten talde konbidaua izan ginan Sarkor taldearenak, Euskal Herri mailan oso ezaguna da Sarkor. Horrez gainera, guk euren abesti bat jotzen doguna lez, esan geuntsan abeslariari ea gugaz abesteko prest egoan eta poz eta jatorrasun handiz baietz esan euskun; emon euskuen harrerea bikaina izan zan.

A.B.: Nik be bi daukadaz. Bata, gure lehenengo kontzertua, lehenengo beti gogoan eukiko dodalako. Nire lehenengo aldia eszenaleku gainean izan zan eta igarten da. Jentea ikustea zure abestiak kantetan ikaragarriko sensazioa da. Bestea, Igorreko jaietakoa.

Lander Txabarrik: Niri gehien gustau jatan kontzertua Igorreko jaietakoa izan da. Jente asko hurreratu zan kontzertua izan zalako. Lagunak eta abar behean ikustea zuri begira, entzuten, oso sensazio polita da.

Lander Elorriaga: Nik bakarrik kontzertu baten jo dot, azkenengo hilabetean sartu nazalako taldean; eta Igorrekoa izan da. Bakarra baina oso ondo egon zan. Esperientzia polita iruditu jatan.

Maketea aterako dozue. Ze-

lango esperientzia da?

A.I.: Abesti dezente atera doguzanez, baita kamisetak be, udalak emondako diruagaz pentsau genduan maketea prestatutea, gure ilusinoan dalako. Abuztuaren 1ean Galdakaoko Hamarrecords estudioa joango gara. Bertan, ez dakigu zenbat denpora egongo garan. Jakin badakigu, sorpresaren bat egongo dana CDan. Hasikeran, hainbat abesti egin genduzan CD luzea egiteko esperantzeagaz baina azkenean sei abesti onenak, potenteenak, gure estiloan ondoen enketan dabenak aukeratu doguz. Orain preperetan gabiz topera, sekulako gogoagaz.

A.B.: Oraindino titulua ez dauka gu finkatuta. Gura doguna egin da ohikoa ez dan zerbaist. Hainbat sorpresa egongo dira. Gainera, lehenengo aldia izango da estudio batera sartzean garana.

Zein motatako musikea egiten dozue?

L.T.: Gauza melodikoak eta metala konbinetan doguz. Beraz, egiten dogun musikea hardcore melodikoa da. Oso argi ez euki arren...

A.I.: Bakotxak ezaugarri bat dauka. Holan, bakotxaren ezaugarri berezia hartu, besteakaz konbinatu eta gure estilo propioa sortu dogu.

"Abuztuaren

1ean Galdakaoko

Hamarrecords estudioa

joango gara. Bertan ez

dakigu zenbat denpora

egongo garan. Jakin

badakigu sorpresaren

bat egongo dala CDan."



Erinn
ENGLISH
SCHOOL

- Cambridge / EOI (ESOL - IELTS) Azterketa ofizialetarako prestakuntza
- Maila guztiak, umeak 4 urtetik aurrera
- Mintzapraktikan arreta berezia
- Ingeles irakasle natiboa, 15 urtetik gorako esperientzia
- Klaseak enpresetan
- Ordutegi malgua (zapatuak barne)
- Talde txikiak

IRAILERAKO MATRIKULA ZABALIK

Apunta zaituzte!

INFORMAZINO GEHIAGO

BARRY - AGATE 665 289 259

erinnigorre@gmail.com

f Erinn Igorre

Olabarri, 17 (Polikiroldegiaren ondoan)

48140 IGORRE